

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

R 26/2011 ebazpena

7/2009 espedientea

Gasteizen, 2011ko abenduaren 22an.

Carlos Palao Taboada presidente jaunak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunek osatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak honakoa

ERABAKI DU

ENTIDAD 1(E)K (IFZ: (LETRA)NNNNNNNN) planteatutako gatazkari buruz, non ukitutako administrazioak Zerga Administrazioaren Estatuko Agentzia eta Bizkaiko Foru Aldundia baitira. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 7/2009 espediente zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1. 2009ko uztailaren 13an, 2009ko ekainaren 13ko data daraman idazki bat sartu zen Arbitraje Batzorde honetan. Idazkia ENTIDAD 1(E)N (IFZ: (LETRA)NNNNNNNN) –aurrerantzean "entitatea"– ordezkariarena zen, eta bertan zenbait aurrekari eta zuzenbideko oinarri aipatu zituen. Azken horien artean, entitateak Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikuluan xedatua aipatzen du zilegitasun titulu gisa.

Idazkiaren amaieran, eskatzen du "Arbitraje Batzordeak has dezala Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean planteatutako gatazka ebazteko prozedura. Gatazka horren arrazoia da Ekonomia Ituneko 12/2002 Legeko 7.Bat.a) artikuluan ezarritako lotura-puntuaren aplikazioa, 2007ko ekitaldiko lanaren atxikipenei dagokienez, aipatutako lege-testuaren eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onesten duen 1760/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

2. Horrela planteatutako gatazka 2010eko abenduaren 20an onartu zuen Arbitraje Batzordeak izapidetzeko.

3. Honakoak dira, laburbilduta, entitateak aipatutako idazkian azaltzen diren aurrekariak:

- Entitateak helbide fiskala UDALERRI 1(E)AN dauka, eta lan atxikipenengatiko 2007ko ekitaldiko auto-likidazio guztiak aurkeztu zituen, eta horren arabera zerga-zorra Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziari (ZAEA) ordaindu zion.
- Gero, Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako entitateari errekerimendua egin zion, 2007ko ekitaldiko langile jakin batzuen lan atxikipenengatiko auto-likidazioak aurkez zituan.
- 2008ko azaroaren 21ean, entitateak ZAEARI eskatu zion berari ordaindutako zenbatekoak Foru Aldundiari transferitzeko. 2009ko urtarrilaren 6ko ebazpenaren bitartez, bi langileri zegokien eskaria onartu zuen, eta gainerakoak ukatu.
- Ebazpen horren aurkako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen entitateak, eta ezetsi egin zen. Ebazpen horren aurka erreklamazio ekonomiko-administratibo bat aurkeztu zen Kataluniako Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboan. Erreklamazio hori ebazteke zegoen gatazka planteatzeko idazkia aurkeztu zen garaian.
- 2009ko maiatzaren 13an, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu zion prozedura has zezan Arbitraje Batzordean. Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak aipatutako eskari horri erantzun zion 2009ko ekainaren 9ko ofizioaren bitartez; hartan, izan ere, adierazi zuen ezen "Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13. artikuluko 3. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera –abenduaren 28ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna</i>

1760/2007 Errege Dekretuaz onetsia– kasuko entitateak zuzenean aurkeztu behar du gatazka Arbitraje Batzordearen beraren aurrean...".

- 2009ko ekainaren 18an, Bizkaiko Foru Aldundiak entitateari 2007ko lan atxikipenen behin-behineko likidazioa jakinarazi zion, eta erabaki zuen betearazpena etetea.

4. Gatazka Arbitraje Batzordean izapidetuta, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikulua bidetik, eta planteamendu hori ukitutako administrazioei jakinarazita, aipatutako erregelamenduko 15.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, alegazioak aurkeztu zituzten bai Bizkaiko Foru Aldundiak, bai ZAEAk.

5. Alegazioak izapidetzean, Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzorde honi 2011ko urtarrilaren 24ko txosten bat igorri zion, Ikuskapeneko Koordinazio Zerbitzuko buruari zuzendua, Ogasun eta Finantza Saileko Zerga Politikako Zerbitzuko buruaren ofizio baten bitartez. Agiri horretan, honako ondorio hau oinarritzeko erabili diren aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak aipatzen dira:

"Eskatutakoari jarraituz, bidezkoa da Arbitraje Batzordeari eskatzea deklaratu dezala Bizkaiko Foru Aldundia eskuduna dela aipatutako langileen atxikipenak ordainarazteko, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsitako Ekonomia Ituneko 7.Bat.a) artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Bizkaiko Foru Aldundiari transferi dakiola ZAEari bidegabeki ordaindutako zenbatekoa, 2007ko ekitaldiko atxikipenen kontzeptuari dagokiona".

6. Bere aldetik, ZAEAk 2011ko otsailaren 9an, alegazioen idazki bat aurkeztu zuen, hilaren 11n sartu zena. Hartan, azaltzen diren egitatezko aurrekarien eta zuzenbideko oinarrien arabera, Arbitraje Batzordeari eskatzen zaio ez dezala gatazka onartu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

7. Espedientea aditzera emanda, Bizkaiko Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen, Ikuskapenaren 2011ko maiatzaren 25eko txostenaren bitartez. Txosten hori Arbitraje Batzorde honi igorri zion 2011ko ekainaren 1eko ofizioaren bitartez. Aipatutako idazkian, Bizkaiko Foru Aldundiak, batetik, bere lehenengo alegazioak berretsi zituen, eta, bestetik, baieztatzen du, darabiltzan argudioetan oinarrituta, bidezkoa dela "errefusatzea ZAEAREN eskaria, gatazka ez onartzeari buruzkoa, zeren eta zergadunak ez baititu betetzen behar diren zilegitasun-baldintzak".

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka honen xede den gaia datza honakoa zehaztean: ukitutako bi administrazioetatik –ZAEA eta Bizkaiko Foru Aldundia– zein den eskuduna entitateak langile batzuei 2007ko ekitaldian ordaindutako lan-etekinen atxikipenak ordainarazteko. Halere, ezer baino lehen ZAEAK gatazka ez onartzeko egin duen alegazioa aztertu beharra dago.

Alegazio hori oinarrituta dago Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikuluan, zeinak zergadunak gatazka planteatu ahal izateko exijitzen baitu gatazka hori negatiboa izatea. Aipatutako arauak honakoa xedatzen du:

"Beste kasu batzuetan, ezein administrazioek bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin".

ZAEAREN esanetan, gatazka hau ez da negatiboa, positiboa baizik, zeren eta bi administrazioek gatazka iturri den eskumena eskatu baitute; horrenbestez,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

zergadunak ez zuen zilegitasunik hura planteatzeko. Gatazka positiboaren kasuan, bide egokia da Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13. artikuluko 1. idatz-zatian jasotakoa, zeinak exijitzen baitu bere burua eskuduntzat jotzen duen Administrazioak inhibizioa eskatu izana eskuduntzat jotzen ez duenari, eta azken horrek errekerimendu horri ezezkoa eman izana, bere eskumena berariaz nahiz tazituki berretsiz. ZAEAREN ustez, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak bere burua eskuduntzat jotzen bazuen Estatuko Ogasunean ordaindutako atxikipenak ordainarazteko, ZAEARI inhibitzeko eskatu beharko zion, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak ezarritako epeetan.

2. Alegazioei buruzko 2011ko maiatzaren 25eko txostenean, Bizkaiko Foru Aldundiak honako gogoetak egiten ditu ZAEAK aurkeztutako prozedurazko eragozpenari buruz.

"Zergadunak 2009-04-28an jaso zuen Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioaren ezespene-ebazpena [jakinarazpenaren data da hori; ebazpenarena, berriz, adierazi bezala, 2009ko martxoaren 18a da], Bizkaiko Foru Aldundiaren likidazioaren aurka aurkeztutako erreklamazioaren harira. Halaber, ZAEAREN aurrean planteatutako berraztertze errekurtsoa, non eskatzen baita auto-likidazioak zuzentzeko, ezetsi egin zen ZAEAK Katalunian daukan Ordezkaritza Bereziaren 2009-04-01eko erabakiaren bitartez [erabaki hori 2007ko ekitaldiari buruzkoa da; 2006koari buruzkoa, berriz, arestian aipatu bezala, 2010eko maiatzaren 31n eman zen]. Zergadunak ezespeneko ebazpen administratibo horien aurrean daukan egoera eskumen gabeziaren deklarazio batetik heldutakoaren berdina edo antzekoa da, eta halakotzat jo beharko litzateke Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikulua bidetik gatazka automatikora jotzearen ondorioetarako.

Zerga likidazio negatiboen edo zergak itzultzeko kasuetan, errekurtsoak, erreklamazioak edo zergadunaren bidegabeko diru-sarreraren eskariak ezesteko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

ebazpenak eskumen gabezia deklaratzeko antzekotzat jo beharko dira, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikulua gatazka automatikora jotzeko exijitzen dituen baldintzak betetzearen ondorioetarako. Kontrako kasuan, zergadunek Arbitraje Batzorderako daukaten sarbidea ixten ariko ginatke, haiek behartuz bide judizialera jotzera, soilik administrazioen artekoa den eskumen-desadostasun batetik heldu den kaltea ebatzi ahal izateko. Nahikoa litzateke administrazio baten jarduerarik eza zergadunen sarbide automatikoa eragozteko, eskumenen bikoiztasuna gertatzen den ezeste-ekintzetatik heldu diren galerei buruzko kasu ugarian.

Aipatutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikuluari jarraituz, bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hilabeteko epean, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin

ZAEAk planteatzen duen interpretazio murriztaileak eragotzi egingo luke zergadunek Batzordearen arbitrajera jotzeko aukera, zergen likidazioetan bikoiztasuna gertatzen den kasu ugarian; hartara, izan ere, zergadunari bide judiziala baizik ez zaio uzten, hain zuzen ere Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen existentziak berak saihestu nahi duena".

(azpimarra jatorrizkoarena da)

3. Ezin gara ados egon Bizkaiko Foru Aldundiak aipatutako argudioekin, gatazka hau Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikulua bidez "automatikotzat" onartzeari dagokionez. Aldundiak ahaleginak egiten ditu gatazka hori negatibo gisa eraikitze, eta horretarako ukitutako administrazioen ezespenebazpen bana aurkezten du: bata Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko eta Administratiboarena eta bestea ZAEAk Bartzelonan duen Ordezkaritza Bereziarena. Alabaina, ebazpen horien ezespenebazpen izaerak ez dakar berarekin desadostasunaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

xede diren atxikipenak ordainarazteko eskumenaren ukapena –izan ere horrexek sortuko zuen gatazka negatiboa–; aitzitik, aurkatutako ekintzak konfirmatzerakoan, ebazpen horiek berretsi egiten dute haiek emateko baliatu zen eskumena.

Hartara, atxikipenen behin-behineko likidazioa egiterakoan, Bizkaiko Foru Aldundiak baieztatzen du, agerikoa denez, eskuduna dela haiek ordainarazteko; eta baieztapen hori berresten da haren aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ebazterakoan, eta Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioak hura konfirmatu baizik ez du egiten berraztertze errekurtsoaren aurkako erreklamazioa ezesten duenean. Eskumen horren baieztapena, hain zuzen ere, ez espen ebazpen horien oinarria da. Are gehiago, eskumen hori berriaz baieztatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak Arbitraje Batzorde honi aurkeztutako alegazioen idazkian, 2011ko urtarrilaren 24koan; alegazio horiek berretsi egingo ditu 2011ko maiatzaren 25eko idazkian.

Gauza bera esan daiteke auto-likidazioak zuzentzeko eta ordaindutako kopuruak itzultzeko eskariaren ez espenaren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoa ezesteko ZAEAk hartutako erabakiari buruz. Hartara, 2009ko apirilaren 1eko erabakiak –Bizkaiko Foru Aldundiak bera aipatzen du, nahiz eta 2007ko ekitaldiari buruzkoa izan– oinarri gisa erabiltzen dituen arrazoiak bideratuta daude erakustera, Ekonomia Itunaren lotura-puntuak ikusita, Estatuko Administrazioak eskumena duela atxikipenak ordainarazteko.

Azaldutako arrazoi horiek berak direla eta, Bizkaiko Foru Aldundiaren argudioa ere ez da konbentzitezkoa; izan ere, haren arabera, zerga likidazio negatiboen edo zergak itzultzeko likidazioen kasuetan, zergadunaren bidegabeko ordainketei buruzko errekurtsoak edo eskaerak ezesteko ebazpenak eskumenen gabeziari buruzko deklarazioen antzekotzat jo behar dira, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikulua eraginetarako. Soilik onar daiteke Bizkaiko Foru Aldundiak aldeztutako parekatzea likidazio negatiboa edo itzulketa baten ez espen-erabakia Administrazioaren eskumen gabezia oinarritzen denean;

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

kasu horretan, likidazio negatibo horren edo itzulketa ezesteko ebazpen horren aurkako errekurtsua ezesteko ebazpenak konfirmatu egiten du aurkatutako egintzaren egile den Administrazioak baieztatu duen eskumen gabezia. Errekurtsu bat ezesteko ebazpen batek ez du aldatzen aurkatutako egintzaren zentzu positiboa nahiz negatiboa, zeren eta egiten duena baita, hain zuzen ere, hura berretsi, errekurtsu bat ezesteko ebazpen baten kasuan gertatzen denaren kontra; izan ere, azken horrek zentzu horri buelta ematen dio baiespenaren arrazoiari dagokionez (baieztatuz, esate baterako, egintza eman zuen organoaren eskumena, baldin eta hura *ratio petendi* bazen).

Antzeko eran, itzulketa-eskari bati buruzko ebazpen bat positiboa ala negatiboa izatea, hura eman duen Administrazioaren eskumenari dagokionez, ez dator haren baiespen- edo ezespen-izaeratik, baizik eta haren funtsetik: ezespen ebazpen bat positiboa izango da (hau da, administrazio horren eskumena baieztatuko du) haren oinarria denean Administrazio horrek, egiazki, eskumen hori bazeukala. Horixe da kasu honetan gertatzen dena ZAEAk erakunde horretan ordaindutako atxikipenen itzulketari ezezkoa ematen dionean. Alderantziz, ezespen ebazpena negatiboa izango da haren oinarria Administrazioaren eskumen gabezia denean. Azken horixe da gertatzen zena BEZaren itzulketak ezesteko ebazpenekin, zeinek ekarri baitzuten zenbait eskumen-gatazka negatibo planteatzea Arbitraje Batzorde honetan, horietakoren bat Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.3 artikulua bidetik. Nahiz eta bi kasu horietan ebazpena itzulketa ezestekoa izan, haren esanahia, egintza diktatu zuen Administrazioaren eskumenari dagokionez, eta, horrenbestez, sor dezakeen gatazkaren positiboa ala negatiboa izateari dagokionez, aurkakoa da.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak zergadunei zilegitasuna ematen die soilik gatazka negatiboa den kasuetan, 13.3 artikuluari jarraituz. Xedapen hori da, beraz, argiro eragozten duena zergadun horiek Arbitraje Batzordera sarbidea izan dezaten, oraingoa bezalako gatazka positiboetan. Kasu hauetan, Arbitraje Batzordearen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
7/2009	R26/2011	2011/12/22	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	PFEZaren atxikipenak. Administrazio eskuduna

jarduera eragozteko ez da nahikoa administrazioetako baten jarduera eza; izan ere, beharrezkoa da beren eskumena dela-eta desadostasuneko jarrerak dituzten bi administrazioek gatazkarik ez aurkeztea Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13. artikuluko 1. idatz-zatiaren bidetik. Baldin eta hori gertatzen bada, kasu honetan bezala, Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak ez du inongo konponbiderik eskaintzen, nahiz eta hori izan deseatzekoa *lege ferenda*.

Hori dela eta, ezinbestez, gatazka hau ezin da onartu. Ondorio hori dela eta, ez da beharrezkoa gatazkaren sakoneko gaia aztertzea.

Horren indarrez, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

Gatazka hau ez onartzea.